


NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

EUSKALERRIAN BARN



Euskal Akademia eta Espainiako Telebisioa

"Euskal Orri" hontako beste toki batean Euskal Akademiaren Batzarren berriak azaldu ziran. Irakurleei denak irakurtzeko eskatzen diegu, Azkean Euskaltzaindiaren erabaki hau dator: Frantziako Telebisioa euskerazko emisioak ematen hasiako dela jakinerazi zuten Euskaltzain Buru ordeak. Espainiakoari ere gauza bera eskatzeko erabaki zuten Batzarreak.

Hona hemen hitz gutxiak esandako garrantzi haundiko eskaria. Izan ere, Frantziako

Telebisioan orain ilabete bat inguru euskeraz emandako emisioak agertzen hasiak dira. Gu-txi bada ere zerbaitekin hasi behar da eta euskeraren gauzak auzoko Frantziako Telebisioan agertzen dira.

Orain Espainiako Telebisioari bere txanda tokatu zaila. Esperoan gaude Euskal Akademiaren eskabidea Madrilo Telebisioaren aferrak bere gain eramaten dituzten jaunek on artuko dutela.

Espainiako V «Gahon-Kanta» Sariketa

Igaz bezala aurten ere Iruñe-

ko "Natacion Klub" ak antolatua datorren emezortzagarrean Iruñeko "Gayarre" Teatroan, gaubeko amar t'erdietan "Espainiako Bostgarren "Bilantzik" berrien Festaldia egingo da.

Sariketa hontan bi "euskal Eguberri kanta" ezaguerazko dira, Denetara amab.

"Bilantzik" izanen dira: Amar erderaz kantatuak, eta bi euskeraz.

Euskeraz kantatuak: BIDEA BA DA; Kantaria: Xabier Madina. Soinu eta hitz egileak: De Val eta Iruñeko. GAU ERDIAN SOINUA: kantaria: Unai Iruñeko, Soinu Egilea: Peru Artetxe, Letra Egilea: Jose Sala-berria.

Urteoro bezala aurten ere aste dugu erdi gabon kantuen arrakasta eta exitoa gure Iruñeko jandaren aurrean euskal kantuenak baino gutxi-

go izanen direla.

Laboa eta Etxamendi

Laboa eta Etxamendi euskal kantariak onenetan ditugu. Laboa, medikua da. "Ez dok Amairu" kantari taldean aritzen dena. Pasaitarra. Etxamendi, nafatarra, Benafarroan sortu eta bizia.

Bi euskal kantari famatu hauek Paris'en egonak dira bere euskal kantak ezagueratzen joan berri den Azaroaren Zazpigarrenean Paris'en Frantziako Herri.

Hizkuntzeen Kantaldia ospatu zian, Han kantatzen erabili zituzten hizkuntzak hauek izan ziran: Okzitania, katalana bretoia eta euskera. Servant bretoieraz, Marti okzitanoeraz, Lach katalanoeraz eta gutarrak euskeraz kantatu zuten.

«Euskal Kulturaren

bideetatik»

Loyola eta Donostiako Herri Irratiak Azaroaren 15 egunean saio berri batekin hasi ziran. Saio honen izena: «Euskal Kulturaren bideetatik».

Saio honen ordu erdiko luzeera izango du. Aste bakoitzaren asteleheneetik ostiralara egingo da, arratsaldeko zazpietan. Saio hau entzule guzietan hartu ahal izanen dute.

"Honako lau zati hauek izango ditu:

1.— Sarrera gisa, galdera bat egingo da, Euskal Herriaren kultura gal deialarik. Galdera honi erantzunak diotenak Ikastolako umeak izango dira, 6 urtetik aurrera bitarteko umeak; beren sende eta andereoen laguntza eska dezake-

te, Berak erantzuteko.

2.— Bigarren zati honetan ere Ikastolako umeak idatziko dute. Gai bat emango zaie.

3.— Irugarren zatian beste bi zati ditu: Ikastolako umeak eta Lizetako edo 11 urtetik 16 urtea bitarteko gazteak idatziko bai dute.


4.— Laugarren zati honek ere bi zati izango ditu: 11 urtetik 16 ra bitartekoak eta 16 gorakoak idatziko bai dute.

Sari ederrak jarri dira.

Idazlanen neurria: Folio bat alde batetik, makina idazten bada, eta bi aldeetatik folio bat, eskuz idazten bada. Gehiago ez gutxiago bai noski.

Euskaldun guziori Donostiako Loyolako irratiaren deia: Har zute parte saio honetan, denon onerako izango delakoan bai gaude...

IKUSLE



TEOBALDO BIGARREN IDURIA

KONTU KONTARI

BURUNDA-KO SORGINAK

Burundan, beste nahi bezala izan omen dira sorginak. San Donato aldetik, Andi menditik Orobera jaisten omen ziren gauaz. Ibilaldi hoietan ikusi zituztela esaten zutenak baziren. Beste batzuk ikusi gabe ere sinesten zuten.

Larunbat sanduko ezlikak emakume guzietan dantzan jartzen zituen herritan. Aldeyua ezlikak hasten zirenetik, jotzen despetu bitartean, hiru belar klase bilda behar izaten ziren eta korrikan ohe azpian sartu. Sorginen kontrako erremedioa zela esaten zuten. Behin lan hori egin ondoren, "jotzak, jo, nahi baduk!" hotsegiten zuten andre haiek. Arro ziren lan haundi hori eginik.

Iruki lorea eta elorria ere sorginen kontra erartzen omen ziren atal-buruan. Beste batzuk azkonar atzaparra josten zuten atarian.

Baziren, halare, zontbeit jende sorginetan sinesterik ez zutenak. Altsasuko mandazai bat Urbasa mendia aurrera omen zijoan gauaz.

—Aizaki! esan omen zion bere lagunari; hau duk sorginen garaia.

—Ez dut nik hortan sinesterik, erantzun izan behar zion.

—Ea hiri ere nere lagun bati bezala gertatzen zaiken!

Harek ere ez omen ziken sinesten eta gau batez nun entzuten duen:

Sorginik badago, eztago?

Sorginik badago, eztago?


tarran, patta pattan...

Handik aurrera sinestu zuten bai sinestut!

SAGI

GURE AMA LURRA

AURITZ BERRI. ERRI TXURIA



AURITZ BERRI

Erri garbi ta polita onek, euskeraz Auritz berri du bere izena, Espinal erderaz. Erri ibarko erririk aundiena da. Kale luze baten inguruan daude erautak etxe txuriak, tellatu gorriekin eta erruaren mutur batean Azekoa aldera eliza berria, galanta lirinara, arrosa margozko arriekin egita eta arbelazko tellatu luze batekin. Elizaren gainera aldiari Santiago auzoa dago.

Berran mendibabean sortu da gure errie alai au. Azkeneko aldiari, antzina, "Mendi txuri" eta "Mendi aundi" elurrez beteak ikusten ziran. Erri inguruan zelai zabalak, urrutirago mendia ederrak, nuni baso galantak. Izan leiken pagotegirik omena erri onek dauka, bere izena ere alaxekoa Oian-zabal; Arzilo ta Itolejin eratu degu. 1.140 hektareako basoa dago.

Gaur Auritz Berrin 325 biztanle ta 73 sendi bizi dira. Geienak larreko beak izaten dituzte. Orain berriz lur sagarrek ari dira jota ke. Gainera erriko etxeak banatzen dizkie sendi bakoitxari, basoekin ateratzen dituzten diruekin, 10.000 pezetara jaietan eta beste amar mila Eguberrian. Ez da laguntza txikia. Basoko dirua orrekin, ere egin dute erriakin Paris txiki bat; kaleak berritu, etxeak apaindu, eliza ta frontoi berria. Eliza au, Nafarroan dagon ederretakoa da, merezi du gelditzea ta ikustea. 1961 garren urtean altxa zuten. Iru zati ditu; eliza, dorre luzea ta ataria bere arkupe ta iturriakin. Frontoi berria 1948 garren urtean egin zuten; bear bezela, alaxeko izena jarri diote, "ederrena". Iruñaruntz goazela badago bei kooperatiba bat. Bertan 14 baserritar batuta daude. Arroz etxe berri ta on bat, etorkizun aundikoa izango litzake erri zoragarri ontan.

Erri au ez da gaurko. 1269 garren urtean, sortuazi zuan Teobaldo II, Nafarroko erregeak. Gudan indartsua zan errege au, aolkua ematen argia eta beartsuak laguntzen esku zabala.

Santiago bidean nola dagoen, erromeslariei, makina bat mesede egia izango da.

Parrokian daukate gurutze eder bat, 16 garren gizaldikoa, zilarrezkoa, "Luisek" egina ta Migel Santesteban Zatarenak emana.

Auñamendi muturreko erri ontan euskal usia artzen da. Eliza barrenean euskeraz idatzita dago izki aundiakin: "Nor Jaungoiko bezela" eta illerrian baita ere "goian bego". Orain dala 60 urte, bizparru aldiz urtean, itzaldiak elizan euskeraz egiten zituzten; 1915 garren urtean, gogojardunak azkeneko aldiz egin ziran. Oraindik gure azkeneko anaien gerrate arte gizaseme guztiak euskeraz mintzatzen ziran. Txistulari eso ona ere ba eukan erri onek, "Silverio Villanueva" bere izena. Txistulari onen bidez aita Olazarnek "Katedra dantza" altxatu zuan. Silberio gure azkeneko guda arte, txistua jo zuan. Gero mututa gelditu zan.

Erri ontako gizasemek, arremar aundiak zituzten baztandarekin. Belarra ebakitzen zetozen eta danak euskeraz mintzatzen ziran.

Europako lenengo daga nagusi garaian, euskal frantsez asko itzuli zijoazela, onera etorri ziran eta aien euskal kanta entzuten pozik egoten ziran Auritz Berritarak.

Gure daga aurretik eskolaren bidez, erderaz mintzatzen asi ziran. Silberio txistulariaren emateak, bere aurrei, atsaldako gosaria eskatzerakoan, euskeraz egin azen zien... gainerakoan txokolaterik gabe gelditzen ziran. Eduardo Iria-

Perrando eta bertsulari nafarrak

Perrandok, bere auzo nafarrekin arremar andiak izan zituen: Amezketak errixka, muga ondoan baitago. Ondoko bertsu hauek eztago non edo zer kaltetara kantatu zituen, baina Albasuko norbait etorri zitzaioela (Albitxuar) eta bai Nafarroako bertsulari batzu alpatzen dituela, irakur dezakegu Auspoo-ren 54-garren liburuxkan;

— Notizi bat nigana — Nafar aldetikan, — bizi geran, galdezka — guregatikan, — Albitxuar batekin — Lekunberritikan, — gure ere goraintziak, geran eritikan, — toki onetikan, — Amezketatikan — Fernandogatikikan, — kantuzko plaitikan, — nagusi ueste diat, — zuengatikikan —

Gero beste bi hauek:

— Zabala ta Fernando, — nafartar birekin — lauok ez gaituk asko — izango irekin — mendeen gaituala — jakinduriakinezdik ondo ematen — panparerriakin — nai badek nerekin — naiz Zabalarrekin — gusto onarekin apusturik egin — gure sendatuko degu — itun badek min —

— Lekunberritarra zan — agure zar ura — ona izan da bafia — orain galdu da — aspaldia jaitoa da — gaixoa mundura — arigauza txarrikan etzailo burura, — nun da nafar ura? — barrundik bero da, — orain du denbora, — betor nere ondora, — zein geiagoa geran — ezagungo da.

Urrengo bertsuan irakurtzen den Ostozko donarnak zitu itxurari; nik ueste Ostozko donarnak beharko duela (el solterón de Osoz):

— Ostozko donarnak — artu digu gala, — koplaririk oherena — an dagoala, — gure berriz ueste degu — oheak gerala, — informiak e-mango — ditut bereala — izan ere ala — itzegin dezala — gizonak bezela — ixildu bestela — gurekin lizituko — ezdek orrela —

Hernaniko Txabalategik berriz, bertsu hau kantatu zuen:

— Fernando ta Zabala — erri batekoak — badakit zeratela — koplari bapoak — Ez izanagatikikan — zuek aña-koak — gu ere egin ginduzen — zerbaiz Jaungoikoak, — Lengon apusunkoak, — Nafar-errikoak, — Lekunberritikoak, — etziran pijoak, — askoz oheak gaitik — Hernanikoak — Perrando ta bere geroak bertsulariek beraz, saioak ibili zituzten nafarrekin. — Bukatuko dugu kontu aldi hau, Perrandoren bi pasadizeokin, toki berean artuak.

BABA EGOSIAK

Mutil gazte batek, sosik ez eta, ostatu batean lau arrautzen zorra utzi omen zuen. Gero Ameriketara joan eta urte multzo baten buruko, aberastu; indiano bat eginik, errira itzuli zen eta ostatuak zorra kitatzea gogoratu zitzaion. Ostalariak kontent, asten da espaldiko kontuak ateratzen eta honela dio: zuk jan lau arrautze haletatik lau txita aterako nituen, eta lau txita horietatik, zortzi urtean buruan, hosteun oillo aterako ziren; bina pezeta egiten badugu, mila pezeta izanen da kontua, oker epana-go.

Indianoak, arriturik, etzituela ordainduko erresponlatzen dako eta etzabala auzitara eraman zuen. Bakotxak gizon zuhur bana izendatzeko egin zuten, eta jueza irugarren. Ostalariak legezoin famatu bat deitu zuen eta amerikanoak, Perrando amezketarra.

Amezketako zuten bilkura eta Perrando ez ageri; be-antetsiak zeudelarik besteak, hara non ailegaten den Perrando itoka, esanez: —Barka, jaunak; atzo egositako babak, azitako landatzen egon naiz; —Ah kaikua, dio lege-gizonak, atzo egositako babak ezduite aldatzeko balio; —Ez eta or-ji zortzi urte jandako arrautzeak ere, txitak ateratzeko, esaten du Perrandok.

Iru kredo. — Erriko erretoreak, trufaz esaten dio behin plazan Perrandori; —Nik iru Kredo omen bitartean, ezetz zuk plazara iru itzuli egin Baietz besteak, merendua postura egiten badute. — Perrandok oraindik buelta erdia falta zuelarik egiteko, erretoreak kredoak aktituak zituen; baina Perrando hala ere, iru itzuliak osatu artio ez gelditu. —Galdu duzu Perrando; aspaldi errezatuak ditut iru kredoak. — Ez orixe, dio Perrandok, berorrek ezditu iru kredo errezatu, kredo bat iru aldiz baizik.

A. APAT - ETXEBARNE

AKULAR SARIA

KONTUA

Egun batez neskatiko bat gan zen pasaitzera eta ikusi zuen andre bat aso gaitan bazoela eta erran zion:

—Zu neskatikoa, badakizu zer pasatzen den?

—Zer? erran zion neskatikoak.

—Belena sortu da aur bat izena du Jesus eta da Yaun-garriaren semea.

Andreak bazakien berri hau errana baizion bere gizonak. Zen artzane eta artzain guziet herri artako errana zion sin-gera batek. Neskatikoak ere nai zuen gan aurraren ikustera bafio italla zen eta ez zakién bidea eta zagon nekatur. Andrea bazakien aso gaitan erran zion:

—Zen zait bada lekue gain daturt Belengo estalperafio kueste zein ederra den Jesus Auzra.

Allatu zirelaik Belengo estalperafio neskatikuak inztion besta, mutiko Jesus irri egiten zuen.

MARIA SOLEDAD ILITZAUPE

ERRATZU 9 urte.

AITAREN LARRITASUNA!

Etse batian bizi ziran senar emazte alaba batekin.

Alako batean alaba orri jarri zan estadoan eta amari erran zion. Bañan aitari erratea bildurra ematen zion.

Egun batean aita orri jarri zan gaixoa eta erraten zun:

—Ekar ezazu medikoa oso min dakat-eta.

Ala ekarri zioten medikoa, eta ateri zan ama bidera eta erraten dio medikoari:

—Gure alabari onela pasatutzen zaio eta orain nola erran behar dugu gizonari gauz ori?

Eta medikoa erraten dio:

—Bah, aisa arreglatuko dugu orri!

Eta joaten da gizon orregana medikoa, eta esaten dio:

—Zer moduz gizon?

—Emetxe ni. Barru onetan mina aundia dakat.

—Bueno, bueno, berelaxe begiratuko dugu.

Eta momento baten burun:

—Egin dugu. Ez duzu gaitz txarra, denborarekin senda-tuko zaizu.

—Bail Zer daukat bada?

—Hembrak zaude!

—Bail...! Bada posible!

—Bai, bai.

A la joan zan medikoa bere etxera eta gizon ori ari zan:

—Jesus, Jesus, au lotsal!

Alaba etorri zan kuartera eta erraten dio.

—Zer duzu, aita?

—Badakizu zer esan ditau medikoak?

—Zer esan dizu bada?

—Hembrak nagola! Jesus, Jesus, Jesus...

Eta alabak erraten dio orduan:

—Ixo, Ixo, aita, ni ere ala naiz.

—Iria nuntait ordun nik zer egin behar dinat?

—Ixo, aita, zerbaite egingo dugu.

—Bai, ik egingo den Jesus, Jesus, nik zer egin behar dinat

Esaiotzu, esaiotzu amari etortzeko.

Ama etortitzen da eta erraten dio:

—Zer esan dizu medikoak?

—Hembrak nagola ez didan erran bada! Orrelakorik aditu duzu nolobait?

Ez dut aditu bañan zer nai duzu, Gure Jaungoikoak mi-lagroak egiten ditu, eta...

—Bai, ez dut olako milagrorik aditu. Orrela behinpein apurto ederrak eraman eta sendatu zen gure gizon gizajoa.

Maria Lourdes MARITXALAR

Amabi urtekoa.

LESABA

LATXAGA